

# MUNGIA-ALDEKO ESAKERAK

- 1.- **Aberatsa, popan atsa.**
- 2.- Mungialdeko biorra, txikerra ta buru gogorra.
- 3.- Jakiñek ez deko kalterik.
- 4.- Ustia erdi ustel.
- 5.- Asto petrolio.
- 6.- Aurrian ederra, atzian gerra.
- 7.- Txitxen-pitxean; Txiri-txiri; Pitxike-pitxike.
- 8.- Eurie ei da sano.
- 9.- Orerri zoratu ein yako.
- 10.- Orrek buruek emoten ba deutso, eiten dau.
- 11.- Orrek dirue satza deko.
- 12.- Oiñetako merkiak ez dau kaderia asko berotan.
- 13.- Salto baten eroango zaitut.
- 14.- Alper baten esana: Nik izerdie oian baiño ez dot emoten.
- 15.- Txakurrak eularike (uluke) asteko desgrazi baten señaia da.
- 16.- Orren berbak aiziak eroanak.
- 17.- Geldi zauz "txintxilimailluroi!
- 18.- Aittu katue begi nabar-nabarrakaz.
- 19.- Orj ume "makarra".
- 20.- Gizon orrek lupuek dekoz.
- 21.- Kanpokoa zurtzat eta etxekoa iñuzentetzat.
- 22.- Geian egotjarren ez da obia.
- 23.- Zenbat eta ekiñau, txarrau.
- 24.- Ekiñe txarra da.
- 25.- **Ikutu, apurtu.**
- 26.- Ondo ibili, gitxi gasteu eta sobrak amari.
- 27.- San Markoatan otzak auntze il zauan Gatiken.
- 28.- Ez dau inbirie baiño gaiso txarraurik munduen.
- 29.- **Guzurre, eperdien erdien azurre.**
- 30.- **Saldue, galdue.**
- 31.- Epelak emon deutsoz.
- 32.- Biargin onak, ez deko era txarrik.
- 33.- Ñon erromeri an Santa Mari.
- 34.- **Asi da il kanpaiak denborak baiño ariñago joten.**
- 35.- **Dana daki ta ezer ez daki.**
- 36.- Ez dau lekurik ala? Zeruen be orrenbeste leku bakozu egon pozik.
- 37.- **Mundu onetako iru gauza eziñak onek dire:**  
**Pobrearen arrazoia,**  
**Alperraren abilidadia,**  
**Azagoko sugarrien berotasune.**
- 38.- **Zu espabiletan zaranerako Jaungoikuak gauza egun eingo dau.**
- 39.- **Diruek txakurre be dantzan ipinten dau.**

- 40.- Begietan adi ez dauana, ez da giateko ona.
- 41.- Ñegar eta barre, kaka berde.
- 42.- Begi gustiek ez dabie era batera negar eiten.
- 43.- Arin eginiko biarra, alperriko biarra.
- 44.- Joan eta etorri kapela gorri.
- 45.- **Eta gero? Otz ez dana bero.**
- 46.- Zelan dekozu izena? Okela gizona. Eta apellidue? Juan Barkillerue.
- 47.- Iru, goda bete miru. Kolkua bete diru.
- 48.- Zure berbiak auntzan gaberdiko estulek baiño gitxiau balio dau.
- 49.- Dekonak sobran eta ez dekonak faltan.
- 50.- Orrek barakillek baiño odol gitxiau deko.
- 51.- Mungie, lapur guztien abie.
- 52.- **Urak dakarrena urak daroa.**
- 53.- Gaua gauekontzat eta egune egunezkoentzat.
- 54.- **Begi guztiek ez dabe bardin ikusten.**
- 55.- **Esanau eta txarrau.**
- 56.- **Zarrena ta txarrena.**
- 57.- **Zorri aberastue iñori ostue.**
- 58.- Zenbat eta zarrau, txarrau.
- 59.- Ez dau iñongo jokalaririk (apostularirik) egin dauanik praka barririk.
- 60.- Ñi nausi edo buru ausi.
- 61.- Zamalloa, artoa ta makalloa.
- 62.- Errosarioa eskuan ta deabrue kolkoan.
- 63.- Auntzen Barrabasen pautse.
- 64.- A zer pareta, karakola ta bareta.
- 65.- Bostak eta illune, txarrie ilteko egune.
- 66.- Asto bat il eta beste bat biztu, kittu.
- 67.- Dekonak deko, eztekonak bateko.
- 68.- Azak eta porruak eroan ditu neguak.

LEGARRETA TAR ASIER